

3000 ESKOLA HIZTEGIA

Hemen gaituzue beste behin BOSTAK BAT taldeko kideok *Karmel* aldizkariak ematen digun aukera eder hau baliatuz gertatu berri dugun hiztegiaren aurretiazko aurkezpena egiten.

Norbaitek itaunduko du, behar bada, ea ez ditugun nahiko hiztegi merkatuan edota zertara datorren euskaldunon artean hainbeste hiztegi argitaratzea. Galdera horiei eta beste zenbaiti erantzutera datoz hurrengo lerro hauek.

Ezaugarria nagusiak

Lehen eta behin esan beharra dago orain kaleratzen dugun hiztegi hau, *HIZTEGIA 3000*-ren eskolarako bertsioa dela. Hortik datorkio izenburua *3000 ESKOLA HIZTEGIA*. Laburkiro esanda, hiztegi handitik hitzik erabilienak eta adierarik beharrezkoenak jaso, eta eratutako hiztegia duzue.

Gure asmo nagusiak kontuan hartuz hiru zutabetan oinarritutako eraikina dugula esan dezakegu:

-Euskaltzaindiak baturako onartutako hitz guztien azken zerrenda osoa jasotzen du.

-Euskalki mailan erabilienak diren hitzak biltzen ditu.

-Hitz modernoetan euskal hiztegietan adostasunik handienaz onartuak eskaintzen ditu.

Hori horrela, inolako zalantzarik gabe honakoa esan dezakegu:

-Batetik, *3000 HIZTEGIA* handitik ume-gaztetxoek beharrezkoak diren hitzak, adierak, adibideak eta esamoldeak aukeratu direla, kategoria gramatikalak eta aditzen era-

bilerak zehaztuz. Era berean, oso tresna baliagarria gertatu zaie-
la euskaltegietan euskara ikasten ari direnei ere, euskara ikaste-
ko metodoetan erabili ohi diren nozio espezifikokoak ere kontuan
hartu ditugulako.

-Bestetik, Euskaltzaindiak kaleratu berri duen euskara batu-
rako 22.000 hitzen zerrenda osoa hitzei tratamendu egokia ema-
nez jasotzean, baturako bideak argitzen lagunduko digu, lexiko
alorreko zalantza guztiak argituz. Honetan, Euskaltzaindiaren
azken bertsioa jasotzen dugunez *Hiztegi Batua* delakoaren az-
ken bertsioa jarraitzen duen lehen hiztegia, eta oraingoz bakarra
dugula ere esan dezakegu.

Zehaztasunak

Oraingo hiztegi honek, bi atal nagusi, "euskara-gaztelania"
eta "gaztelania-euskara", eta alde bien arteko "orri gehigarriak"
biltzen ditu. Horiek antolatzean honela jokatu dugu:

Euskara-gaztelania

Hitzen zerrenda egiterakoan hitz erabilienak bildu nahi izan
ditugu. Horretarako:

-Batetik, *Hiztegi Batua* delakoak dakartzan hitz guztiak jaso
dira 31.489 sarrera dituen *3000 ESKOLA HIZTEGIA* honetan.
Hitzak jasotzerakoan, bestalde, Euskaltzaindiak eskaintzen di-
tuen ezaugarriak ere jaso dira: hau da, zeintzuk diren ("h.") ho-
betsiak eta zeintzuk ("* e.") erabiltzeko proposatuak, eta abar.

-Bestetik, euskalkietan erabilera zabalekoak diren hainbat eta
hainbat hitz ere jaso dira, euskara batua aberastu eta janzteko
asmoz. Horrela lortutako sarrera handiari gizarte modernoan
oso erabiliak diren hitz teknikoak erantsi zaizkio, eguneroko bi-
zitzan ezinbestekoak gertatzen direlako.

Gaztelania-euskara

Gaztelaniazko aldeak 20.000 sarrera inguru ditu. Alde hone-
tan bi urrats nabarmenduko genituzke:

-Sarreraren aukeraketa: Hitzik erabilienak jasotzen saiatu gara.
Horretarako, Irakaskuntzako ministerioak ume eta gaztetxoan

beharrezko hezkuntzarako proposatzen dituen hitzak bildu dira, eta haur-gazteentzat eginiko hiztegieta erabilitako zerrendak (batez ere euskarakoak) aztertu ditugu. Zerrenda oso aproposa eta praktikoa lortu dugula uste dugu.

-Hitzen tratamendua: Hitz erabiliene zerrenda osotu ondoren euskarako ordezeko hitzik egokienak ematen saiatu gara, gaur egun euskal lexikologia alorrean eginak ditugun aurrerakuntza guztiak erabiliz. Lan hori buru ondoren, Euskaltzaindiak baturako proposatutako hitzak idazkeran "*letra etzana eta tamaina handiagokoa*" erabiliz nabarmendu nahi izan ditugu hiztegiaren erabiltzaileari laguntzeko asmoz.

Erdialdeko gehigarriak


"Euskara-gaztelania" eta "gaztelania-euskara" aldean artean tarakatutako orrietan zenbait lagungarri bildu ditugu: euskal deklinabidea, euskarako aditzaren (alokutiboa edo hika moldea barru dela) eta gaztelaniazko aditzaren joko osoak (irregularrak barru), haurren hizkuntzako zenbait hitz, eta Euskaltzaindiak bere zerrendan "h." eta "*" e." ezartzen dizkien hitzen sarrera alfabetikoa

Laster esku artean izango duzuen *3000 ESKOLA HIZTEGIA*, talde lanean, hainbat pertsona gaituk parte harturik egin duzu. Bostak bat taldekook oraingoan ere kanpoko hiru pertsona jakintsuren laguntza jaso dugu. Eurok ia taldekide bihurtu zaizkigu, *Sinonimoen hiztegia* egiterakoan ere lankide izan baikenituen. Jose Ramón Etxebarria Bilbao, Martin Orbe Monasterio eta Jesus Mari Zalakain Garaikoetxea dituzue.

Gorago esan bezala, sarreretan (euskara aldean nahiz gaztelaniakoan) hitzik erabiliene biltzen saiatu gara. Hori dela eta, oso lagungarria gertatuko zaigula guztioi idazkerari buruzko zailantzak argitzeko orduan.

Baturako orain arte onartutako hitz guztiak ere bertan izango ditugu eskura-eskura, nahi ditugun azalpenak jasotzeko. Gaztelaniazko arloan, ostera, aukeratzeko bidea eskaintzen digu baturako hitzak zeintzuk diren jakitera emanez.

Neurritan guk asmotan genuena baino zertxobait handiagoa atera bazaigu ere, *3000 HIZTEGIA* handiak baino tamaina txikiago izateak erabilgarritasun handiago emango dio.



Azkenik, abiada izugarrian aldatzen ari zaigun gizarte moderno honetan euskarari leku egokia egiten laguntzeko asmoz burututako lana dela aitortu behar. Gogoko izango duzuela uste dugu.

Aurkezpen labur honen bidez *Karmel* aldizkariaren irakurleoi aurren berri gisa eskaintzen dizuegu une honetan laba berotan goritzen ari den opil berri honi buruzko albistea.

Bostak bat